

ADIERAZPIDE GRAFIKO-PLASTIKORAKO TEKNIKAK

Historian zehar, teknika artistikoen eragin itzela izan dute artelanen izaeran eta forman. Adierazpide-beharren antzera materialek, instrumentuek eta prozedurek denborak aurrera egin ahala eboluzionatzen dute eta legatu tekniko-artistiko bat osatzen dute. Legatu hori ezagutzea ezinbesteko baldintza izango da lan artistikoak ikertu edo egin nahi dituen pertsona orok bere bitartekoak aberats ditzan. Adierazpide Grafiko-plastikorako Teknikak izeneko ikasgaiak ekoizpen artistikoa orokorrean eta, zehazki, ekoizpen plastiko, grafiko eta bisualak ahalbidetzen dituzten bitartekoen, tekniken, prozeduren eta aplikazioen inguruko jakintzak lantzen ditu. Ikasgaiaren bitartez, betidanik pintura, grabatu eta estanzazio sailkapena jaso dituzten teknikei loturiko jakintzak bereganatuko dituzte ikasleek (Marrazki Artistikoa sakontasunez landuko da lehen eta bigarren mailako derrigorrezko ikasgaietan). Era berean, sailkapen horretan sartzen ez diren teknika alternatiboen eta berritzaileen oinarriko alderdiak landuko dira ere.

Teknika grafiko-plastikoa ezagutzeak eta praktikan jartzeak komunikazio bisualaren materialtasuna posible egiten du eta lengoia propioak ikertzen eta bilatzen lagunduko du. Lengoia horietan oinarrituta, nahiko konplexuak diren bakarkako zein taldeko sorkuntza-proiektuei ekiteko gai izango den identitate artistiko bat eraikiko da. Proiektu horietan ikuspegi inklusiboa aplikatuko da eta material ezberdinen erabilerrari buruzko jakintzak integratuko dira, erabiliko diren materialen eta sorkuntza-prozesuan sorturiko hondakinen kudeaketari loturiko iraunkortasuna aintzat hartuz. Era berean, material eta tresna berritzaileen erabilera aintzat hartzeaz gain, biodegradagarriak diren eta ingurumenaren arloko egungo araudia betetzen duten material berriak ere erabiltzeko aukera aztertuko da.

Ikasgai honetan 5 konpetentzia espezifiko zehaztu dira. Aipatuak Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia delakoaren 6 osagaien (harte eta identitate kulturala, ikerketa eta analisia, autoadierazpidea, bizitza-esperientzia, ekoizpen artistiko eta kulturala, plangintza eta antolakuntza) inguruan artikulatu dira eta oinarritzen dira teknika ezberdinen jakintzan, artelan ezberdinen azterketan eta hartzean, adierazpide-baliabide ezberdinen erabilerran, gaitasun autonomia garatu zein ekoizpen artistiko individual edo kolektiboak egiteko, kalitatea ebaluatuz eta proposaturiko helburua aintzat hartuz eta norbere buruaren eta besteen bizipenez baliatuz.

Era berean, jakintzak, abileziak eta jarrerak biltzen dituzten zenbait ebaluazio irizpide zehaztu dira.

Alderdi horiek guztiak aintza hartuz, ikasgai honek ondokoak garatu nahi ditu ikasleengan:

- Ondare artistiko-plastikoarekiko sentsibilizazioa eta errespetua, aipatua egiteko erabili diren teknikak aztertzekeo gai izanaz.
- Ekoizpen artistiko grafiko-plastikoak ulertzea eta interpretatzea.
- Bitarteko materialak eta prozedura-bitartekoak aukeratzea ekoizpen plastikoari loturiko kooperazio-izaerako proiektuetan edo proiektu pertsonaletan aktiboki parte hartzeko.
- Lan grafiko-plastikoak sortzea material, prozedura eta teknika egokiak koherentziaz

aplikatuz, ideiak, sentimenduak edo emozioak komunikatzeko xedearekin.

Konpetentzia espezifiko horiek eskuratzeko aktibatu beharko diren ikasgaiaren oinarritzko jakintzak bost blokeren inguruan artikulatzen dira.

Alderdi orokorrak; Pintura-teknikak; Grabatu- eta estanpazio-teknikak: Teknika mistoak eta alternatiboak; Proiektu grafiko-plastikoak.

Ikaste-egoerek elkarrekin lotutako lana ahalbidetuko dute, lan-munduan eta arlo profesionalean ohikoak diren lan-metodologietara hobeto egoitzen diren metodologiak islatuz honela. Halaber, ikasleek ikasgai honekiko duten inplikazio-maila handituko da, heziketa osoagoa eta integralagoa eskainiz. Ikuspegi inklusiboa jarduera ororen oinarria izango da beti eta ondare kultural eta artistikoaren aniztasuna aitortzeak suposatzen duen aberastea aintzat hartuko da ere.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Lan grafiko-plastikoak aztertzea, beren alderdi formalak baloratuz, aipatuak egiteko eta kontserbatzeko erabili diren teknikak, materialak eta prozedurak alderatuz eta beren balizko ingurumen-eraginaren inguruan hausnartuz, erreferentzia-esparru pertsonal bat osatzeko. Esparru horren ardatza izango da sormena indartuko duen eta ondarearekiko adeitsua den jarrera positibo bat, iraunkortasunarekin ere konprometitua egon beharko duena.

Ikuspegi ezberdinetatik landu daitezkeen osagai konplexu gisa hartuta, ekoizpen artistikoak beren sorrera hartu duten testuinguru sozial, kultural eta historikoaren isla dira. Testuinguru hori zehazten lagunduko duten alderdietako bat da erabilitako materialen, tekniken eta prozeduren analisia, beren adierazpide- eta komunikazio-kualitateekin harremanetan jarriz. Horretarako, alderdi formalak aintzat hartu beharko dira ere (konposizio; forma; kolore eta testura; argia, etab.). Analisi horrek testuinguru ezberdinetako lanak alderatzea eta harremanetan jartzea ahalbidetzen du. Horrek, bitarteko ezberdinak emango dizkie ikasleei, etorkizuneko beren balorazio kritikoetan edo beren ekoizpen artistiko propioetan aplikatzeko. Bestalde, ekoizpen artistiko ezberdinen analisi horrek ondarearen aniztasun kultural eta artistikoaren balorazio bat sustatzen lagunduko du. Aztertutako adibideen artean sartu beharra dago genero-ikuspegia eta kultura arteko ikuspegia, arreta berezia eskainiz emakumeek eta mendebaldeko arte-kanonean oso presentzia urria izan ohi duten talde etnikoetako edo herrietako pertsonak egindako ekoizpenen azterketari.

Ekoizpen grafiko-plastikoak aztertzeko metodologia ezberdinak erabil daitezke. Horien artean dago iturri analogikoen edo digitalen bitartez dokumentatutako ikerketa edo analisi zientifikorako tresna teknologiko berritzaileak. Aipatu biek gerturatze-adibide esanguratsuak badira ere, lanaren ezinbesteko azterketa bisualaren osagarriak dira. Azken horren erraztasun teknikoa, berehalakotasuna eta aldakortasuna dela eta, gerturatze-metodori nagusitzat jo dezakegu, funtsezko bere bi alderditan: gozamen estetikorako gerturatze –arreta eta memoria bezalako beste prozesu kognitibo garrantzitsu batzuk aktibatuz– eta zentzu kritikoa garatzeko bitarteko. Hartze-metodologia horien aplikazioa beste jakintza-eremu batzuetara transferi daiteke ere, ikasleen heziketa integrala hobetuz.

Bestalde, ekoizpen artistiko-plastiko gehienak, objektu fisikoak direnez, ingurumen-izaerako hausnarketa bat merezi duten osagaiak dira, beren exekuzioan erabilitako material, teknika eta tresnen eraginari zein ekoizpen-prozesuan egondako eraginei dagokienez,

prozesu horrek planetarako kaltegarriak diren hondakinak sor baititzake. Horrela bada, bereziki garrantzitsua da lan grafiko-plastikoan erabilitako materialak sortzeko erabili diren teknikak ezagutzea. Ikasleek alderdi horiek guztiak izan behar dituzte kontuan lan zehatz bat hartzeko unean bertan bere ingurumen-eragina baloratu ahal izateko. Azkenik, ekoizpen artistikoaren iraunkortasuna ondare artistikoaren kontserbazioaren eta zaintzaren aldeko apustu kontziente batez osatu beharra dago, solasaldi adeitsua ezarriz bi alderdi horien artean.

Konpetentzia espezifikoa hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK3, STEM2, DK1, PSIIK2, HK1, HK2, HK4, KKAK1, KKAK2.

2. Lengoaia grafiko-plastikoaren berezko osagaiak eta prozedurak erabiltzea, trebetasun teknikoak agertuz eta beren aukera eta konbinazioekin era sortzailean eta berritzailean esperimendatuz, adierazpide-gaitasun autonomoa eta pertsonala garatzeko eta helburu zehatz batzuei erantzuteko.

Lengoaia grafiko-plastikoa gizakiaren bidelagun izan da, hasiera-hasieratik. Horrexegatik, oso-oso aberatsa eta anitza da. Ondorioz, adierazpide grafiko-plastikorako teknikak aztertzeko ezaguera-eremu askori loturiko jakintzak eduki beharra dago, prozedura ezberdinak aplikatzeko praktika eta abilezia barne. Teknika grafiko-plastikoei bitarteko oso indartsuak eskaintzen dituzte edozein gairen inguruko edo bizipen pertsonaletan edo partekatutako bizipenetan oinarritutako ideiak, sentimenduak eta iritziak era pertsonal eta askean adierazteko. Horrenbestez, ikasleek beren alderdi pertsonala sar dezakete beren konposizioetan, beren inplikazioa areagotuz honela. Edonola ere, bilaturiko nahitasunaren arabera egokienak diren bitartekoak aukeratu beharko dituzte, azken produktuaren iraunkortasunari buruzko beharrezko hausnarketa ahaztu gabe.

Ekoizpen grafiko-plastikoei, halaber, esperimendatzeko eta sormenerako aukera handiak eskaintzen dituzte, material, erreminta, teknika eta prozedurak era oso ezberdinetan konbinatuz. Horrek guztiak askatasun handiagoa ematen die ikasleei beren ideiak eta sentimendu pertsonalak irudikatzeke. Beharrezko trebetasunak barneratzeari eta ekoizpenak exekutatzeko pixkanaka-pixkanaka eskuratuko den abileziari esker ikasleak inprobisatzeko gai izango dira. Finean, ekoizpen grafiko-plastiko hauek burutzeak bultzada handia emango dio ikasleen hazkunde pertsonalari, autokonfiantza-klima bat sortuko du eta, era berean, zentzu kritikoa zorrotz, autoestimua handitu eta sormena bultzatuko du.

Konpetentzia espezifikoa hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: PSIIK1.1, PSIIK1.2, HK4, EKK3, KKAK3.1, KKAK3.2, KKAK4.1, KKAK4.2.

3. Lan grafiko-plastikoak bakarka edo taldean sortzeko prozesua planifikatzea, teknika, material eta prozedura ezberdinek eskaintzen dituzten aukerak eta proposamen zehatz horretarako agertzen duten egokitasuna baloratuz, eraginkortasunez eta era sortzailean erantzun ahal izateko ekoizpen kultural edo artistikoari loturiko edozein zeregini.

Ekoizpen grafiko-plastikoen konplexutasun-mailak oso ezberdinak dira eta ekoizpen beren baldintzen eta horiekin zer ikusirik ez duten baldintzen mende daude. Ekoizpenak

arrakastaz burutu ahal izateko ikasleek, konplexutasun-mailarekin batera, proiekturako eskuragarri dituzten bitartekoen aukerak eta bitarteko horien egokitasuna baloratu beharko dituzte. Egoera-diagnostiko hori eta gero arreta handiz planifikatu beharko dituzte proiektua exekutatzeko fase ezberdinak, proposamenera hobekien egokitzen diren bitartekoak kriterioz eta era sortzailean aukeratuz. Honela, abiapuntu-egoera aztertzekeo prozesua eta lanaren plangintza azken produktua bezain garrantzitsuak izango dira ikasleentzat, edo garrantzitsuago ere. Hauek, harreman-sare konplexu hau egokiro kudeatzeko gai izan beharko dute proiektu grafiko-plastikoaren arrakasta bermatzeko.

Proiektuak kolektiboak direnean oso garrantzitsua izango da, halaber, taldekide ezberdinen parte-hartzea planifikatzea, beren ahuleziak eta sendotasunak aintzat hartuz, partekatutako esperientziak integratzeko eta lan-dinamika eraginkorrak, adeitsuak, enpatikoak eta aberasgarriak ahalbidetzeko xedearekin.

Azkenik, lan grafiko-plastikoa amaitu ostean funtsezkoa izango da ebaluazio-prozesu bat garatzea, bakarka edo taldean. Horren barruan, erabilitako materialek, teknikak, gauzatze-prozesuek eta lengoaiak azken produktua nola baldintzatu duten aztertu eta azaldu beharko dute ikasleek.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: STEM3, PSIIK3.2, PSIIK4, EKK2, KKAK4.2.

4. Proiektu grafiko-plastikoak (indibidualak edo kooperazio-izaerakoak) garatzea, material, teknika eta prozedura ezberdinak trebetasunez erabiliz, sorkuntza-prozesua integratzeko eta modu eraginkorrean, iraunkorrean eta sortzailean erantzun ahal izateko jarduera-helburu zehatz batzuei.

Taldeko proiektuetan zein proiektu indibidualetan, ikasle bakoitzak arazoak gaintitu beharko ditu, barneratutako teknikak eta trebetasunak era kontzientean aplikatuz. Horretarako, funtsezkoa izango da planteaturiko beharrerako egokienak diren teknikak, materialak, euskarriak eta prozedurak zehaztea. Nolanahi ere, materialak aukeratzeko eta prozedurak aplikatzeko lan grafiko-plastiko ezberdinak sortzeko, iraunkortasun-ikuspegia nahitaez aplikatu beharko da. Horrexegatik, birziklatutako eta kutsatzen ez duten materialak erabiltzea eta ingurumenarekiko adeitsuak diren prozedurak erabiltzea proposatzen da.

Proiektuak indibidualak direnean autonomia eta autoestimua garapena bultzatzen dute eta, aldi berean, etorkizuneko balizko kooperazio-izaerako ekoizpenen aberastea ahalbidetzen dute. Proiektuek kooperazio-izaera dutenean, halaber, ikasle bakoitzak bere ekarpena egingo du, besteek jasoko ditu eta beste taldekideekin partekatuko du. Honela, enpatia eta arazoak eta gatazkak ebazteko estrategiak garatuko ditu. Bi kasuetako edozeinetan, xedea da lan-dinamika enpatikoak eta aberasgarriak sortzea, horien bitartez ikasleek beren lana zein besteon lana errespetatzen ikasiko baitute. Horrek, ekarpen baliotsua suposatuko du identitate pertsonala eraikitzekeo eta espiritu kritikoa aberasteko. Bestalde, proiektu grafiko-plastikoak (indibidualak zein kooperazio-izaerakoak) esperimentazioari, adierazpide pertsonalari eta arazoak ebaztekeo autonomiari lotu daitezke. Indibiduala denaren eta kolektiboa denaren arteko solasaldi horren mende dago, hein handi batean, edozein proposamenari emandako erantzunaren eraginkortasuna eta egokitasuna.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: STEM3, PSIIK1.1, PSIIK3.1, PSIIK3.2, EKK3, KKAK3, KKAK3.2, KKAKC4.1.

5. Norberaren eta besteen produktu grafiko-plastikoak ebaluatzea, beren inpaktu soziala eta kulturala baloratuz, adierazpide grafiko-plastikoaren eremuan garapen pertsonala eta profesionala sustatuko duen jarrera kritiko eta arduratsu bat indartzeko.

Taldeko proiektu artistiko guztiek beren kideen inplikazio aktiboa behar dute beren plangintza- eta exekuzio-prozesuan esku hartzen duten ikaste guztiak arrakastaz aplikatu eta hasieran planteatutako xede horri erantzungo dion azken produktu egoki batean islatzeko. Eztabaidatu, zalantzak agertu eta ideiak partekatzeko komunikazio-prozesu bat da. Prozesu horrek inklusioa sustatu eta ikasleen garapen pertsonal eta sozialerako aukerak balioesten ditu eta, horretarako, proiektuak arlo horietan eta beste batzuetan izan dezakeen eraginak ulertu behar dira.

Horrexegatik, proiektu grafiko-plastikoa burutu ostean, funtsezkoa izango da norberaren zein besteen ekoizpenak ebaluatzea. Ebaluazio horretan, hasteko, erabilitako teknikak, materialak eta prozedurak hasieran planteaturiko nahitasunera eta lortu nahi zen produktu motara egokitu diren ala ez aztertu beharko da. Horretarako, ikasleek hiztegi espezifiko eta terminologia profesional egokia erabili beharko dute. Horrez gain, jarrera enpatikoa eta eraikitzailea agertu beharko dute, akatsak eta ahuleziak ikasteko eta hobetzeko aukera gisa hartuz.

Ebaluatu beharreko beste alderdi bat da, ezbairik gabe, exekuzioaren kalitatea. Halaber, jardueraren plangintza ekoizpena burutzeko egokia izan den ala ez eta proiektuaren balizko ingurumen-eraginak aztertu beharko dira ere. Azken produktuak jabetza intelektualekiko agertzen duen errespetua aztertzeke unea da ere, bai eta egindako lanen eta eskolaz kanpoko beste eremu batzuetako beste antzeko proiektuen arteko paralelismoak zehazteko, teknika grafiko-plastiko ezberdinak ezagutzeak eta aplikatzeak eskaintzen dituen aukera profesionalen inguruan hausnartuz. Horrek ikasleek ikasgaietan duten inplikazioa areagotuko du, ikasgelan egindako lana eta lan-munduan etorkizunean izan dezakeen proiektzioa lotuko baitute.

Horrexegatik guztiagatik, etorkizuneko lanen hobekuntzan zein arrazoitutako gaitasun kritikoan eragingo duen mugimendu bat sortuko da. Mugimendu hori bizitza pertsonal eta akademikoaren eremu askotan aplikatu ahalko da eta funtsezkoa da pertsonalitate autonomoa garatu ahal izateko.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: PSIIK1.1, PSIIK1.2, PSIIK3.1, HK4, EKK2, KKAK1, KKAK2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1. Konpetentzia espezifikoa
1.1 Mota eta aldi ezberdinetako lan grafiko-plastikoak aztertzea, erabilitako materialak, teknikak eta prozedurak identifikatuz, beren adierazpide-eraginak baloratuz eta balio estetiko iritziak planteatuz, beren alderdi formalen azterketa oinarri hartuta.
1.2 Ekoizpen grafiko-plastiko ezberdinetan erabilitako osagaiak, teknikak eta prozedurak alderatzea, aldeak eta alderdi komunak identifikatuz eta horien arteko harremanak ezarriz.

1.3 Aldi historiko ezberdinetan sorkuntza grafiko-plastikorako erabilitako prozeduren eta materialen iraunkortasuna eta ingurumen-inpaktua kritikoki baloratzea, ingurumenarekiko adeitsuak diren alternatibak proposatuz.

2. Konpetentzia espezifikoa

2.1 Adierazpide-egoeraren edo eskaturiko jardueraren nahitasunaren arabera egokienak diren bitarteko grafiko-plastikoak era sortzailean aukeratzea.

2.2 Adierazpide grafiko-plastikoaren teknika, material eta prozedurak era sortzaile eta autonomoan erabiltzea adierazpide- eta komunikazio-behar ezberdinak asetzeko, arreta berezia eskainiz exekuzioaren zorrotasunari eta azken produktuaren iraunkortasunari.

3. Konpetentzia espezifikoa

3.1 Lan grafiko-plastiko ezberdinak (indibidualak eta taldekoak) sortzeko prozesu osoa planifikatzea, exekuzio-fase ezberdinak zehaztuz eta aukeratu diren teknika, material, prozedura eta lengoaien egokitasuna argudiatuz komunikazio- eta sormen-nahitasun ezberdinak oinarri hartuta.

3.2 Kooperazio-izaerako proposamenetan faseen eta lan-taldeen antolakuntza egokiro planifikatzea, kasu bakoitzean behar diren trebetasunak identifikatuz eta zereginen ardura hartuz.

4. Konpetentzia espezifikoa

4.1 Ideiak, iritziak eta sentimenduak adieraztea ekoizpen grafiko-plastiko (indibidualak zein taldekoak) ezberdinak sortuz, zio edo planteamendu ezberdinetatik abiatuta, eta prozedura ezberdinak trebetasunez eta egokiro aplikatuz.

4.2 Taldeko ekoizpen grafiko-plastikoetan era koordinatuan eta kooperazioa bermatuz inplikatzeko, jarrera adeitsua, sortzailea eta adiskidetsua agertuz iritzi ezberdinak daudenean taldearen baitan.

4.3 Konposizio grafiko-plastikoak egitea (indibidualak edo taldekoak) birziklatutako materialak erabiliz ahal denean; eta inklusio-eta iraunkortasun-irizpideak aplikatuz.

5. Konpetentzia espezifikoa

5.1 Produktu grafiko-plastiko ezberdinak ebaluatzea, erabili diren lengoaiak, teknika, material eta prozedurek hasierako proposamenarekiko agertzen duten egokitasun-maila terminologia espezifikoa erabiliz argudiatuz, exekuzioaren zorrotasuna eta kalitatea eta iraunkortasunari eta jabetza intelektualari loturiko alderdiak baloratuz.

5.2 Adierazpide grafiko-plastikorako teknikak ezagutzeak garapen pertsonal eta profesionalerako eskaintzen dituen aukerak identifikatzea eta baloratzea.

Oinarrizko jakintzak

A. Alderdi orokorrak.

Lengoaia grafiko-plastikoa: forma, kolore, testura eta konposizioa. Bere bilakaera historikoa.

Teknika grafiko-plastiko ezberdinei loturiko euskarriak, erremintak, pigmentuak, aglutinatzaileak eta disolbatzaileak. Materialen arteko elkarrekintza.

Material artistiko ezberdinen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Euskarri eta material iraunkorrak.

Genero-ikuspegia, kultura arteko ikuspegia eta ikuspegi inklusiboa ekoizpen grafiko-plastikoetan.

Produktu kultural eta artistikoak ikertzeko, aztertze, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko estrategiak.

Jarrera etikoa jabetza intelektualaren aurrean. Erabilera arduratsuak.

B. Pintura-teknikak.

Material, erreminta eta euskarriak. Ezaugarriak eta terminologia espezifikoa.

Ura oinarri duten teknikak: urmargo, tenpera eta akriliko.

Teknika solido, oliotsu eta mistoak. Arrautzako tenplaketa. Enkaustadurak. Pastelak. Olioak. Urarekin nahas daitezkeen olioak. Pintura biodegradagarriak.

C. Grabatu- eta estanzazio-teknikak.

Material, erreminta eta euskarriak. Terminologia espezifikoa.

Monoinprimaketa eta erreprodukzio anizkuna. Lan grafikoa. Monotipia laua.

Erlebedun estanzazioa. Xilografia. Linoleo.

Estanzazio kalkografikoa. Zuzeneko eta zeharkako teknikak.

Estanzazio laua. Metodo planografikoa. Litografia. Metodo permeografikoa. Serigrafia.

D. Teknika mistoak eta alternatiboak.

Adierazpide grafiko-plastikorako beste teknika, material eta prozedura batzuk.

Irudi digitala. Arte digitala. Metodo elektronikoa. Copy Art.

E. Proiektu grafiko-plastikoak.

Proiektu-metodologia.

Proiektu grafiko-plastikoak planifikatzeko eta garatzeko estrategiak. Lan-taldeak antolatzeko estrategiak.

Lan piktoriko bat burutzeko prozesua.

Autonomia, zorrotasuna lanak burutzerakoan eta/edo exekutatzekoan.

Proiektu grafiko-plastikoak erakusteko eta zabaltzeko estrategiak.

Proiektu grafikoaren faseak eta emaitzak ebaluatzeko estrategiak. Akatsa, hobetzeko eta ikasteko abagune.